

KLOWN BERTSO SAIOAK

Beatrizek kantuan jarriko ditu bertsolariak

SINOPSISIA

Inprobisazioa oinarri duten bi sormen alor uztartuko dira: klowna eta bertsoa. Beatriz Egizabal umoregile feministak egingo du gidari lana eta bera arduratuko da bakarrizketa laburren bidez bertsolariei gaiak proposatzeaz. Lau ahots elkarlanean arituko dira umoretik eta feminismoz. Bertso saio baten ohiko moduari eutsiko zaion arren, Beatriz Egizabalen egiteko moduek bertsolariei oholtzan egoteko modu berri bat eskatuko die. Saio dinamiko eta berritzaileak dira, giro askotara egokitze saioak.





FITXA ARTISTIKOA

- **GIDOIA :** Beatriz Egizabal
- **ZUZENDARITZA:** Beatriz Egizabal
- **PARTAIDEAK:**
Beatriz Egizabal eta
Emakumezko bertsolariak *
(antolatzaileak aukeratutakoak)

FITXA TEKNIKOA

- **Nori zuzendua:** Gazteei eta helduei
- **ESPAZIOA:** Oholtzan zein lurrean.
Espazio minimoa 6 x 4 m.
- **Lekua:** Aretoak, kultur etxeak, elkarteak...
- **Iraupena:** 80-90 min.
- **Muntaia:** emanaldia hasi baino 60 min.
- **Desmuntaia:** 30 min.
- **AURREKONTUA :**
2.010€ + BEZ (%21) soinu-ekipoa gabe
2.350€ + BEZ (%21) soinu-ekipoa barne
**soinu-ekipoa beharrezkoa da
- **Formatu txikia** kontsultatu

BEATRIZ EGIZABAL OLLOKIEGI

(LASARTE-ORIA, 1971)

Periferiako oholtzetara igotzen da gehienbat. Kontalaria, pailazoa eta azken urtetan, bakarrizketalaria.

Ingurumen ikasketak egin zituen eta laborategian lanean zegoela bidean kontalari tailer bat topatu zuen. Hor ikusi zuen bere hitzegiteko zaletasunak ibilbide artistikoa hartu zezakeela. Liburutegiek laborategiak baino gehiago asetzen zuten eta haurrentzako kontalari lanetan hasi zen. Magisteritzako ikasketak burutu zituen kontalaritzari titulu bat gehitzeko asmoarekin.

Eta bapatean klown-a gurutzatu zitzaion; hor argi eta garbi ikusi zuen, sudur gorria gertu izaten saiatuko zela. Ohiulari Klown taldeko partaidea izan zen eta urte batzuk bertan eman ondoren bere talde propioa sortu zuen: Kontukantoi.

Ordutik 1000 ipuin saio baino gehiago egin ditu, eta klown inprobisazio ugari jardunaldi eta hitzaldietan. Azken urteetan bakarrizketen bidea jorratu du bereziki, *Erradikalak gara* eta *Erradikalak ginen* Ane Labaka bertsolariarekin batera eta egun herriz herri dabil *Magma Mia* bakarrizketarekin.



KONTAKTUA

Marta Agirrezabala Zubillaga

Marketina eta Komunikazioa

marketina@lanku.eus

675716472 - 943 26 07 55

www.lanku.eus